



AHOLKULARITZA SAIOPEN NONDIK NORAKOA ETA AURKEZTUTAKO HAINBAT LIBURUREN IRUZKINAK (2017-2018)

Liburuen Altxorra / Liburu Ibiltariak egitasmoaren baitan, zenbait eskolei Eskola Liburutegien Aholkularitza Zerbitzua eskaintzen die Galtzagorri elkarteak. Eskola hauek txikiak izanik ere, handitu egin dira azken urteetan, eta horregatik, bertako irakasleei aholkularitza eta formazioa eskaintzea hobetsi du Haur eta Gazte Literatura elkarteak.

Formazio saio hauek eguerdi partean izaten dira, ikastetxe horietako bakoitzean, eta gehienez ere, ordu eta erdi irauten dute.

Saio horietan, urtero, argitaratu berri diren liburu gomendagarri batzuen aurkezpenak egiten dizkiegu irakasleei eta horiekin landu daitezkeen estrategia eta gaiak erakutsi.

Hona hemen, aholkularitza saio hauetan 2017-2018an aurkeztu diren liburuen zerrenda:

Haur Hezkuntza:

1.- Tontolapiko. Pello Añorga / Jokin Mitxelena. DENONARTEAN

Umorea erabiliz eta ipuin tradizionalen giroa ezarriz haurren arteko jazarpenari buruz hitz egiten digu obra honek. Gutxitan ausartzen dira idazleak hain enfoke berezitik heltzen halako auzi serioak.

Ohiko diskurtso serio eta goitik-beherakoa erabili ordez, haurrek eurek ulertzeko eta onartzeko moduko diskurtsoa garatzen da, epaiketarik gabe, baina gertaerak garbi adierazita, non eta emaitza harrigarria lortzen den: hiruzpalau urtetik gorako haurrak adi eta barrez jarraitzen dute ipuina, ekintzen ondorioa zein den ikusita, baina epaituak sentitu gabe, enpatizatzen, baina errietarik jaso gabe.

2.- Haserre gorria. *Mireille d'Allance*. Itzul.: *Alice Casenave*. IKAS

Emozioei buruz hitz egitea haurrekin lan nekeza da, askotan sentitzen dutena hitzez adierazi ezinik egoten baitira.

Eskergarria da liburu irudidun honek haurren laguntzarako eskaintzen duen guztia, istorio entretenigarri baten jantziarekin, amorruek jota gaudela, itsu - itsuan nahigabe egiten ditugun triskantzak zer-nolakoak diren erakusten baitigu.

3.- Magnolia jauna. *Quentin Blake*. Itzul.: *Eva Linazasoro*. PAMIELA-KALANDRAKA

Ipuin fantastikoa da, adiskidetasuna eta errepikapenean oinarritutako jolas narratiboa ardatz hartzen dituen. Tonua umoretsua da, kasik ganberroa.

Orrialdez orrialde Magnolia jaunaren zaletasun bitxiak aurkezten zaizkigu, eta tarteka (tamalez) zapata bat falta duela esaten zaigu.

4.- Irakuriezadazu ipuin bat! *Benedicte Carboneill / Michaël Derullieux*. TARTTALO

Otsoak sortzen duen beldurra erabili du egileak, ipuin kitzikagarri hau sortzeko, album formatuan.

Otsoak liburu bat topatuko du lurrean, baina irakurtzen ez dakienez, laguntza eskatzen du basoko animalien artean. Jakina, ez dago otsoari kasu egingo dion animaliarik, denek bai baitakite, piztiatza horrek aukera txikiena ere baliatzen duela gosea besteen lepotik berdintzeko. Harik eta untxiak baietz esaten dion arte.

5.- Grufaloa. *Julia Donaldson / Axel Scheffler*. Itzul.: *Ametz Santxez Munain*. BRUÑO

Txikiaren indarra adimenez bizkorra izatean datzala erakusten digu Donaldson-ek ipuin honetan.

Azal gogorreko album ilustratua da, kateamendu teknika erabiliz kontakizuna garatzen duena.

Sagua da heroi-protagonista, eta basoko harrapariak dira gainetik kendu beharreko etsaiak. Saguak munstro batekin geratua dela asmatzen du, piztiak

gainetik kentzeko, eta beren lepotik barre egiten du, harik eta basoaren sakonenean norekin topo egingo eta...

6.- Non zaude, ilargi? *Emile jadoul*. Itzul.: *Inma Errea*. DENONARTEAN

Nola dastatu ilargia obraren haritik jarraiki datorren albuma, lehen irakurleentzako pentsatua.

Animaliak elkarrekin saiatuaz ilargirainoko dorre bat egitea lortuko dute, berarekin zer gertatzen den jakiteko.

7.- Mila bi etxetan bizi da. *Judith Koppens / Anouk Nijs*. Itzul.: *Ihintza Elsenaar*.

TTARTTALO

Bilduma baten lehen alea.

Bilduma honetan gizarte gaiak jorratzen dira, fokuan haurren egunerokoa jarrita. Honela lehen obra honetan haurren eguneroko zereginez hitz egien zaigu, hala nola hortzak garbitzeaz, janzerakoan autonomia izateaz, elikaduraz,... baina gertakari hauek denak testuinguru berezi batean txertatzen dira: gurasoak bananduta daude eta haurra bi etxetan bizi da, txandaka.

8.- Zerua gris dago. *Isaac Martinez / Liébana Goñi*. PAMIELA

Etxepare sariketaren 2016ko irabazlea.

Ilustrazioak kontaketa ardatza dira, eta ia ez dago testurik.

Herri txiki batean kokatzen da, elurra besterik ez dagoen kale hutsen artean dagoen plazan.

Harantz doa haur bat, zer sumatuko, eta parez pare, plazaren beste aldean haur bat inguratzen dela ikusiko du. Elkarrengana doaz, baina beste haurrak zaputz egingo du, protagonista neska delako (eta ez mutila). Bizkarra eman eta badoala ikusirik, protagonistak elur bola bat jaurtitzen dio. Mutikoari erronka gustatu eta elkarri botatzen hasten dira, jolasean, etxera itzultzeko ordua jo arte.

9.- Ez da erraza katagorri. *Elisa Ramon / Rosa Osuna.* Itzul.: *Koldo Izagirre.* PAMIELA-KALANDRAKA

Amaren heriotza eta berarengatiko dolua katagorri-kumeak nola bizitzen dituen ikusten da album honetan.

Istoria tristemena da, amaiera askatzailea duena, doluaren amaiera dela aldi berean. Tonua eta garapena minan zentratzen dira batik bat, onarpen ezan eta oroitzapenetan kateatuta egotean.

Adin GUZTIENTZAT

10.- Xomorropoemak eta beste piztia batzuk. *Leire Bilbao / Maite Mutuberria.* PAMIELA

11.- Piztipoemak eta beste xomorro batzuk. *Leire Bilbao / Maite Mutuberria.* PAMIELA

Xomorropoemak eta beste piztia batzuk obra izan da 2017. urteko Euskadi Literatur Saria, haur eta gazte literatura atalean.

Poemen bidez osatutako obra bat da. Berez bi liburuki buru-askitan banatuta dagoena, nahiz eta ezaugarri asko partekatzen dituzten: lehen liburukia “Xomorropoemak eta beste piztia batzuk” deritzona da, eta bigarren liburukia “Piztipoemak eta beste xomorro batzuk”.

Izenburuek iradokitzen dute ere barne konplexutasun maila desberdina dutela, lehena zomorroi (txikiago, beraz sinpleago direnak; hau da: haur txikiagoak) zuzenduta dagoelarik, eta bigarrena piztiei (handiago, beraz konplexuago; hau da: haur kozkorragoak). Halere banaketa horri osagarritasun bat eranstean diote izenburuen bigarren parteek (ying-yang), zomorro eta pizti izenak elkar-gurutzatzen dituztelako, iradokiz xomorroek konplexutasuna ere maita lezaketela eta, piztiak sinpletasuna.

Poema narratiboak dira, figura erretoriko gutxiak, eta formarekin bezala esanahiarekin jolasten dutenak.

Euren bidez batik bat irakurlearengan barrea eta ezustea eragiten dira.

Laburbilduz, liburuki bakoitzak izaera buru-askia duelarik, lehenak (Xomorropoemak...) irakurketa oinarrikoagoa eskaintzen digu, egitura zein

motiboei dagokionez, eta bigarrenak (Piztipoemak...) gai eta forma konplexuagoak eskaintzen dizkigu (migratzaileak, bakardadea, malenkonia,...).

12.- Naturaz gozatzeko eskuliburua. *A. James eta E. Bone / Briony May Smith.* Itzul.: *Miren Arratibel.* TTARTTALO

Miren Arratibel. TTARTTALO

Izenburuak garbi adierazten duen legez, kontsultarako gida bat da.

Klima ozeanikoa duten lurraldeetan erabiltzeko da gida hau, zehazten diren paraje eta inguruneek hala nabarmentzen dutelako, nahiz eta egileek esplizituki ez adierazi.

Sarrera atalean txangoak eta mendi irteerak antolatzean ezinbestekoak diren baliabideak eta oharrak zerrendatzen dira. Jarraian Ingurune bakoitzean zer egin daitekeen azaltzera lotzen da: kostaldea eta erreka bazterrak, basoa, gaueko irteerak,... Bakoitzean zer aurki genezakeen, nola joka genezakeen eta denbora pasarako jolasak proposatzen dira. Horietaz gain, zein landare eta animalia bizi diren inguruneotan adierazten zaigu.

13.- Piztia txikiak. *Pascale Hedellin / Dankeleroux eta Anne Eydoux.* TTARTTALO

Jakintza liburu da, intsektuak (zomorroak) dituen adigai.

Wakou bildumako gainerako liburuak bezala, egitura konplexua du, testu moten arabera banatuta, denera bederatzi testu mota desberdin, hala nola kazetaritza artikulua, hiztegi erako definizioak, instrukzioak,...

14.- Zaindu edo xahutu? *Genevieve Rousseau / Estelle Meens.* TTARTTALO

Album ilustratua da. Ipuin baten bidez irakurleak ingurunearekiko ardura hartzeko arrazoiak jasotzen ditu, eta portaera arduratsuaren oinarritzko arauak ezagutzen.

Protagonista haur arduragabe bat da, irakasleak eskolan emandako azalpenen ondorioz arduratsu bihurtzen dena. Kontakizunean zehar ikusiko dugu protagonista nola saiatzen den jarraibide zuzenak burutzen, nahiz eta lehenengoan ez asmatu.

Umore dosi handiarekin garatzen da kontakizuna.

15.- Jazz naiz. *Jessica herthel eta Jazz Jennings / Shelagh McNicholas.* Itzul.: Mikel

Juaniz Arilla. BELLATERRA

Album biografikoa da, benetako pertsonaietan eta gertaeretan oinarritutakoa. Jazz Jennings nerabeak kontatzen du bere esperientzia haur transexual gisara, fokuan jarriaz haurtzaroan, bere izaera ingurunearekin partekatu zuenean. Batik bat gurasoekin eta lagunekin bere identitatearen inguruan sortu ziren zalantzak eta oreka aurkitu arte eman zituzten pausoak erretratatzeko dira.

16.- Antzinako zibilizazioak. *Hainbat egile.* TTARTTALO

Jakintza liburu bilduma da, lau liburukitan osatuta dagoena.

Historiako azalpenak ematen dira, antzinako lau zibilizazioei buruz, bakoitza liburuki batean:

- 1.- Zeltak
- 2.- Greziarrak
- 3.- Erromatarrak
- 4.- Egiptoarrak

Egitura osatzeko irizpideak berdinak dira, atal askotan osatuta daude, orri-biko bana atal bakoitzeko, gehienetan herritar xumeen bizi ohiturak deskribatzera lotzen dira, baina badaude ere kultur ezaugarri nagusienak deskribatzeko erabiltzen diren atalak ere; azken hau nabarmena da Egiptoko zibilizazio zaharraren deskribaketari dagokion liburukian.

Azalpen-egituratik gehien nabarmentzen dena irudien erabilera da, testuaren edergailu izatetik informazio iturri primario izatera pasatzen baita kasurik gehienetan, eta testuak informazio osagarria emateko funtzioa hartzen baitu. Irudiak askotan argazkia dira, eta kulturaren berri zuzenagoa eta sakonagoa izatea ahalbideratzen dute.

Lehen Hezkuntzako LEHEN ZIKLOA:

17.- Untxiren ohitura txarrak. *Julian Gough / Jim Field.* Itzul.: *Edu Zelaieta.* IBAIZABAL

Protagonista estereotipatuen inguruan osatutako bilduma baten lehen alea da. Irakurzaletasuna irakurle hasiberriengan sustatzeko erabiltzen diren teknikak darabiltza.

Liburuak itxura erakargarria dauka, tapa gogorrekin, tamainaz txikia baina mardula, ilustrazioek orrialde ia osoak hartzen dituztela, letra tipo ertainarekin. Pertsonaiak gutxi dira, protagonistez gain otsoa bakarrik agertzen da. Pertsonaien karakterizazioa muturrera eramandako izaera estereotipatuetan oinarritzen da, aurre-ezarritako rolak betetzen.

Testua oso arin korritzen da, elkarrizketa ugarirekin, atzera edo aurrerako jauzi narratiborik egin gabe, eta gag bilduma bat dirudien hari batean txertatuta.

18.- Eskolako arbola. *Antonio Sandoval / Emilio Urberuaga.* Itzul.: *Fernando Rey eta Uxue Rey.* PAMIELA-KALANDRAKA

Album ilustratua.

Errealismo magikoaren korrontearen barruan koka daiteke istorioa. Badu ere aldarrikapen literaturatik, eta baita Gianni Rodariren literatur joeren kutsua.

Istoria eskola atari batean gertatzen da, bertan dagoen zuhaixka ia ihartu baten inguruan. Egun batez haur batek arbolari kariñozko igurtzi bat egiten dio -berak ez jakin zergatik-, eta orduantxe zuhaixkari hosto berde bat ernetzen zaio. Beste igurtzi bat egin, eta beste hainbeste gertatu.

19.- Azken gutuna. *Antonis Papatheodoulou / Iris Samartzi.* Itzul.: *Fernando Rey.* PAMIELA-KALANDRAKA

Album ilustratua. Album Irudidunentzako Nazioarteko IX. Compostela Sariaren irabazlea, 2016an.

Mediterraneoko uharte batean kokatzen gaitu istorioak. Bertako postariaren azken lan eguna da, erretreta hartzekotan baita. Egunero bezala bere erronda egiten du, gutunak banatzen, baina zerbait ezohikoa nabaritzen du, inor ez baitago egunero egon ohi den lekuan. Dena hutsik dagoela, bere lanean jarraitzen du, harik eta azken gutuna banatzeko lekura iristen den...

20.- Ernesto eta Zelestina, kale musikariak. *Gabrielle Vincent*. Itzul.: *Eva Linazasoro*

PAMIELA-KALANDRAKA

Album ilustratua.

Pertsonaia-bilduma baten alea.

Aspaldi euskarara itzulia izan zen (*Zesar eta Ernestina musikari kalez kale*. Timun Mas, 1982), beste zenbait istoriorekin batera, baina 2017ko itzulpen honek testua gaurkotu, eta edizioa alde guztietatik hobetzen du.

Abentura xume bat da hari narratiboa, pertsonaien izaeran eta egileak sortzen duen atmosferan hartzen duena indarra. Ezaugarri horiekin batera ilustrazioen kalitateak bihurtzen dute obra (bilduma) hau maila goreneko.

Era berean gidoiaren garapenean irakurleari ematen zaion funtzioa ikuslearena baino gehiago da, eszenatik eszenarako tartekak eta idatzizko testuak esaten ez duena eraikitzeke ardura baitu.

21.- Banaezinak (Bilduma). *Nathalie Dargent / Yannick Thomé*. Itzul.: *Miren Agur*

Meabe. PAMIELA-KALANDRAKA

Formatu txikiko liburuen bilduma. Oraingoz, hiru zenbaki argitaratu dituzte euskaraz, baina agian gehiago ere izango dira, zeren Frantziar *Les inséparables* bildumaren itzulpena baita, gaur-gaurkoz hamar zenbakiz osatuta dagoena.

Liburuaren egitura komikiaren, albumaren eta irudiz lagundutako testuaren arteko hibrido bat da, zeinak, bide batez, irakurketa asko errazten duen, eta xede irakurlearen (6-8 urte?) lehen irakurraldiak samurtzen dituen.

Banaezinak Jon, Julene, Lukas, Lea, Peru eta Aminatak osatutako lagun koadrila da.

Zenbaki bakoitzean taldeko haur bat jartzen da fokuari pean, egoera jakin bat kudeatzeko dituen arazoez jabetu gaitzen, eta ematen zaion irtenbideaz hausnar dezagun.

Bilduma honek bertute interesgarriak ditu, hiru alderdi nagusietatik begiratuta: gaiei heltzeko moduan, istorioa kontatzeko moduan, eta baita arazoa *lantzeko* moduan ere.

Inportanteena dena: ez da iritzia manipulatzeko ahaleginik egiten, eta errespetu osoz jokatzen du kontaktaren haria gobernatzean. Pertsonaiak

sentitzen dituen emozioak zeintzuk diren esaten digu narratzaileak, gaiaren inguruko iritzi orokorrik ezarri gabe, eta paraleloki narratzaile gabeko elkarrizketak eskaintzen zaizkigu, komikiaz baliatuta. Nolabait esatearren, gatazkatsua izan daitekeen testuinguru bat aurkezten da, narratzaile abegikor baten eta bestelako baliabideen bidez, irakurleak bere ondorio partikularrak eraiki ditzan. Korolario gisan, azken orrialdeetan *test* bat dago, irakurleari galdetuz nola jokatuko lukeen hainbat arazoren aurrean, eta emaitzen araberako profil psikologikoak eskainiz.

Lehen Hezkuntzako BIGARREN ZIKLOA:

22.- Sagarraren misterioa. *Paddy Rekalde / Belatz.* ELKAR

Misteriozko abentura domestikoa da, narrazio irudidun formatuan plazaratua. Protagonista haur bat da, etxeko leihotik ikusitako ezohiko gertaera baten aurrean ikerketa bat abiatzea erabakitzen duena: gauez leihotik begira dagoela, etxaurreko zelaian barrena sagar bat ibili badabilela ikusten du. Berak ezin ulertu nola, belardiaren alde batetik bestera joaten da sagarra. Handik aurrera gauero zelatan jarriko da. Gertakaria errepikatzen dela ikusiko du, eta bere peskizak misterioa argitzera eramango dute, aterabide erabat logiko, baina uste ez bezalako, baten bidez.

23.- Printzesa puzkertia. *Arrate Egaña / Manu Ortega.* EREIN (2017, 2. ed.)

Duela hogeitau urte (1998) SM argitaletxearen “Baporea” saria jaso zuen. Orain bigarren edizio eguneratu bat kaleratu dute. Ipuin tradizionalen ezaugarri formalekin osatutako narrazio moderno bat da, baloreen literaturaren korrontearen barruan aisa koka daitekeena. Protagonista gurasoek erabat (gehiegi) babesten duten neskato puzkertia da, bere burbuilatxoan eroso bizitzeko arazorik ez duena. Adinean aurrera egitean, ordea, maiteminak (gustatzeak) bere arazoari aurre egitera bultzatuko du, ibilbide inizatiko gogor bati ekin behar badio ere.

24.- Betaurrekoak hozkailuan. *Oihane Fernandez / Ainara Azpiazu “Axi”*. IBAIZABAL

Narrazio intimista da, narratzailea protagonista duena.

Kontaktaren funtsa eta dohain nagusia haur protagonistak eskolarako idatzi behar duen idazlanaren biran dabil. Miresten duen norbaiti buruzko idazlana sortu behar du, eta bere ikerketak aitarengan fokua jartzera eramango du. Bere aita berrogeitaka urteko gizon “bitxia” da, zaletasun eta ohiturei dagokionez.

Narrazioan zehar haurrak erakusten duen aitarenganako hurbiltzeko ahalegina, eta bere baitarako ateratzen dituen ondorioak kontaketa txeratsu atsegin bat eskaintzen digute, txepelkerian erori gabe.

25.- Arbolandi. *Jacques Goldstyn*. Itzul.: *Aritz Galarraga*. TRAMUNTANA

Album ilustratua.

Liburu mardul honek harritu egiten du irakurlea.

Gutxitan bezala irakurlea jartzen du begiratzen teknikoki nola eraiki den istorioa: testuaren eta ilustrazioaren arteko harremana, irudiak eta atmosfera eraikitzeko moduak, are paperaren zuritasunaz nola baliatzen den... Guztiak egiten du bereizi.

Edonola ere, kontatzen duen istorioak ez du gutxiago eskaintzen. Abiatzen da erakutsiz nola ezohiko haur batek, ezohiko adiskidetasun harreman bat daukan haritz zahar batekin. Narratzailea haurra bera delarik, haurrak zergatik duen arbola lagun eta gainerako xehetasun asko ematen dizkigu, halere urria den testu batekin. Kontaktak, ordea, ezusteko garapen bat dauka, obraren erditik aurrera espero ez den norabide bat hartzen baitu.

26.- Marimutila naiz, eta zer? *Ana Jaka / Patxi Gallego*. ELKAR

“Eta zer?” bildumako 29. alea.

Bilduma honetan ohikoa den bezala, protagonistak aurreiritzien kontra borrokatu behar du, bere izaeraren defentsan.

Oraingoan eskolan zein etxean sortzen zaizkio arazoak, neskatoa izanik ere, femeninotzat jotzen diren estereotipoak atsegin ez dituelako, ez janzkeran, ez jardueretan.

Familiako eragozpenetan jartzen da fokua kontaketa, izeba baten ezkontzarako erosi behar duten arroparengatik.

Lehen Hezkuntzako HIRUGARREN ZIKLOA:

27.- Beroki gorria. Patxi Zubizarreta / Yolanda Mosquera. IBAIZABAL

Peru Abarka album lehiaketako XI. edizioko irabazlea.

Kronika historiko fikzionatua da, Espainiako Gerra Zibileko euskal haur erbesteratuen gertakari batean oinarritzen dena.

Habana itsas-ontzian Santurtzitik Southampton-era babes bila joan ziren haurren kronika hunkigarria da, haur batek narratzaile papera hartzen duelarik.

Gertakari nagusiak historikoak izanik ere, kontaketa fikzioan oinarritzen da, haur horiek bizitakoa irudikatzen ahalegintzen dena, protagonistei dagokionez korala dei daitekeen kontaketa batean.